

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

*Iragarkia*

2017ko martxoaren 13an egindako bilkurran, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespina eman zion, hainbat baldintzekin, Visesa sozietate publikoak abiarazi zuen 2-2 area -OR Aldapeta- urbanizatzeko proiektuaren aldaketari.

Espedientea jendaurrean egon zen epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako Departamentuak (GI-2633 foru-errepidea) proiektuari buruzko aldeko txostena egin zuen.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, proiektuak Done Jakue Bidean izan dezakeen eragina gutxitzeko, aldaketa batzuk eta prebentziozko neurriak proposatu zituen.

2017ko maiatzean, Visesa sozietate publikoak urbanizazio proiektua berrikusia aurkeztu zuen, behin betiko onespina jasotzeko. Idazterakoan kontuan izan zituzten hasierako onespeneko baldintzak, eta Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenak Done Jakue Bidearen babesa dela eta.

Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak zein Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak berrikusitako dokumentuari buruzko txostenak egin zituzten.

Aurrez espedientea aztertu ondoren, eta Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak hala proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez

ERABAKI DU

*Lehenengoa.* Behin betiko onespina ematea Visesa sozietate publikoak abiarazi duen 2-2 area -OR Aldapeta- urbanizatzeko proiektuaren aldaketari.

Onartutako dokumentua 2017ko apirilkoa da, eta Humberto Miguel, Marta Merino, eta Xabier Uranga arkitektoek sinatutakoa.

*Bigarrena.* Honako baldintzetan eman da onespina:

a) Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuaren 0469/2017 txostenaren eranskinean (maiatzaren 22koa) jasotako baldintzak: etorkizunean obrak hartzeari buruzkoak.

b) Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuaren 0394/2017 txostenaren eranskinean (maiatzaren 24koa) jasotako baldintzak: larrialdiko ibilgailuen (suhiltzaileak) sarbideari eta Santa Ana egoitzarekin hartutako konpromisoei buruzkoak.

c) Behin betiko onespina jakinarazten denetik 15 eguneko epean, urbanizazio-proiektua ikus-onetsia aurkeztu behar dute.

d) Obrak hasi aurretik, beharrezko baimenak eskatu behar dizkiete Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzari (Done Jakue Bidea) eta Bide Azpiegiturako Departamentuari (GI-2633).

*Hirugarrena.* Behin betiko akordioa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Halaber, lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkari batean emango da jakitera.

AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 13 de marzo de 2017, aprobó inicialmente, con condiciones, la modificación del proyecto de urbanización del área 2-2 -OR Aldapeta- promovido por la sociedad pública Visesa.

En el período de exposición pública del expediente no se presentaron alegaciones.

El Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa informó favorablemente el proyecto (carretera foral GI-2633).

La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco propuso algunas modificaciones y medidas preventivas para aminorar el impacto del proyecto sobre el Camino de Santiago.

En mayo de 2017, la sociedad pública Visesa presentó el proyecto de urbanización revisado para su aprobación definitiva. En su elaboración tuvieron en cuenta las condiciones impuestas en la aprobación inicial, así como las propuestas del Gobierno Vasco en relación con la protección del Camino de Santiago.

El documento revisado fue informado favorablemente por el Departamento de Obras Públicas, Infraestructuras y Servicios y por el Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente.

Previo análisis del expediente, y a propuesta del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar definitivamente la modificación del proyecto de urbanización del área 2-2 -OR Aldapeta- promovida por la sociedad pública Visesa.

El documento aprobado es el que tiene fecha de abril de 2017. Está suscrito por los arquitectos Humberto Miguel, Marta Merino y Xabier Uranga.

*Segundo.* La aprobación se sujeta a las siguientes condiciones:

a) Condiciones del anejo del informe 0469/2017, de 22 de mayo, del Departamento de Obras Públicas, Infraestructuras y Servicios: relativas a la futura recepción de las obras.

b) Condiciones del anejo del informe 0394/2017, de 24 de mayo, del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente: relativas al acceso de vehículos de emergencia (bomberos), y a los compromisos asumidos con la residencia Santa Ana.

c) En el plazo de 15 días desde la notificación de la aprobación definitiva, se presentará el proyecto de urbanización visado.

d) Previo al inicio de las obras se solicitarán las autorizaciones necesarias a la Dirección de Patrimonio Cultural (Camino de Santiago) y al Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa (GI-2633).

*Tercero.* El acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Igualmente se dará a conocer en alguno de los diarios de mayor difusión del territorio histórico.

Jendeak oro har jakin dezan argitara ematen dena ondoko argibidearekin: Administrazio-bideari amaiera ematen dion eta behin betikoa den erabaki honen aurka jarraian agertzen diren errekurtsuak aurkeztu ahal izango dira:

Berraztertze errekurtsua: aukerazkoa: erabakia hartu duen organoari, hilabeteko epean, akordioa argitaratzen denetik kontatzen hasita. Errekurtsua aurkeztu eta hilabete igarota ebazpena jakinarazi ez bada, orduan errekurtsua onartu ez dela ulertuko da. Edota, zuzenean,

Administrazioarekiko auzi-errekurtsua: Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, akordioa argitaratzen denetik kontatzen hasita; edota, administrazioaren isilunearen ondorioz ezetsi bada, sei hilabeteko epean. Hori guztia, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu jartzeari utzi gabe.

Zarautz, 2017ko ekainaren 2a.—Alkatea. (4115)

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, se podrán interponer los siguientes recursos:

Recurso de reposición, con carácter potestativo, ante el mismo órgano que ha dictado el acto, en el plazo de un mes, a contar desde la publicación del acuerdo. El recurso se entenderá desestimado si transcurre un mes desde su interposición, sin que se notificará la resolución. O bien directamente,

Recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar del día de su publicación, o seis meses en el caso de desestimación por silencio administrativo; todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

Zarautz, a 2 de junio de 2017.—El alcalde. (4115)